

Mondragon Unibertsitatearen 2017-2018ko ikasturte akademikoa irekitzeko ekitaldia

2017/09/11

Mondragon Unibertsitatearen 2017/2018ko ikasturtea irekitzeko ekitaldia, aurten bere 40.urteurrena bete duen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen Eskoriatzako campusean ospatu da gaur. Ekitaldiak Mondragon Unibertsitateko Errektore Vicente Atxa eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakari Iñigo Urkullu izan ditu buru, azken honek ekitaldiaren itxiera eginez.

Mondragon Unibertsitateko Errektore Vicente Atxak, unibertsitate nahiz gizarte gisa, goi mailako hezkuntzan inbertsio handiagoa egiteko beharra azpimarratu du, etorkizuneko Euskadi eraikitzeko. Errektoreak zuzentzen duen unibertsitatearen 2017-2020 Plan Estrategikoaren 3 erronka nagusietan oinarritu du bere hitzaldia: unibertsitateko hezkuntza-berrikuntzan liderra izatea, unibertsitatea nazioartera zabaltzea eta gure ikerkuntzak ahalik eta eraginik handiena izatea enpresetan eta gizartean. Erronka hauek zenbait binomio hartzen dituzte barne: teoria eta praktika, ikasketa eta lana, tokikoa eta globala, ikertzea eta transferitzea. Mondragon Unibertsitatearen eredian binomio hauen osagai batak ez du zentzurik bestea gabe.

Lehen erronkari dagokionez, Vicente Atxak ikasleari ikaskuntza ezberdin bat, unibertsitate esperientzia eraldatzaile bat eskaintzeko konpromisoari egin dio erreferentzia, *“persona eta profesional gisa hazten lagundu eta etorkizunerako modu onenean prestatuko dituen”*.

Erreferentziako unibertsitatea

Bigarren erronka estrategiko bezala, Euskadik, maila globalean lehiatuz tokiko enplegua sorraraziko duen enpresa-ehuna behar duela zehaztu du. *“Horretarako, nazioarteko esperientzia duen tokiko talentua behar dugu, baita tokiko Euskadik erakarriko duen nazioarteko talentua ere”*, nazioarteko ikasleak gradu, graduondo eta dokotorego programetara erakartzeko gaitasuna izanik *“aukera profesional bezalako mundu bat irekitzen diegulako nazioarteratutako enpresa lehiakorretan”*.

Hirugarren erronkari dagokionean, ikerketaren hobekuntza eta transferentzia aipatu ditu, Euskariko enpresa eta erakundetan izan dezaketen inpaktua kontutan izanik *“eragiteak esan nahi du, enpresei lehiakorragoak izaten laguntzea. Hau da, nazioarteko merkatu batean, gure enpresak onenen artean egotea da gure herrialdearen erronka”*.

Mondragon Unibertsitateak, erreferente izaten jarraitu nahi du eremu guzti hauean eta horrek, ezinbestekotzat dauka ikerketa, berrikuntza, ez geratzea eta beti aruretik joatea. Hori lortzeko berriz, Errektoreak esan duen bezala, *“goi mailako hezkuntzan inbertsioa handitzea ezinbestekoa da, etorkizuneko Euskadi hori eraikitzeko, hau da, Euskadi industriala, persona trebatuak dituen eta balio erantsi handiko enplegua eskaintzen duena izateko”*. Horregati, esan du, euskal unibertsitate-sisteman lankidetzat publiko-pribatuaren eredian sakondu behar dugula *“gure etorkizuneko herrialdea ezagutzan oinarritzeko eta industria-herrialde aurreratuaren eredia izatea lortu nahi duten gazteak trebatu, eutsi eta erakartzeko”*.

Errektorearen hitzen aurretik, Hasgai Nagusia, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasle eta ikerlaria den Eugenio Astigarraga dokoreak esaini du. Hitzaldiaren izenburua, *“Irakasle analogikoa gizarte digitalean”* izan da.

2016/17ko balantzea

Bestalde, Mondragon Unibertsitateko Idazkari Nagusi Idoia Peñacobak 2016-17ko Txosten Akademikoa aurkeztu du. Besteak beste, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen 40.urteurrena eta Enpresagintza Fakultatearen Irungo campus berriaren inaugurazioa nabarmendu ditu.



Mondragon Unibertsitateko 2017-2018 ikasturte hasiera ofizialeko mahai presidentziala

Mondragon Unibertsitateak 15 graduako titulu eskaini ditu –ingeniaritzako 9, enpresagintza arloko 2, hezkuntza arloko bi, ikus-entzunezko bat eta gastronomia zientzietan bat-, informatika eta telekomunikazioen gradu bikoitzaz gain. Era berean, 14 unibertsitate master ofizial eskaini ditu, horietatik bat berria: Gastronomia Zientzietan masterra.

Matrikulei dagokionez, 2016/17an aipaturiko ikasketetan 4.689 ikasle izan ditu ikasketa ofizialetan, iaz baino %11 gehiago. Horietatik 3.936 gradu-tituluetan eta 753 graduondoan. Gainera, guztira, eskainitako graduondoko titulu propio eta iraupen laburragoko ikastaro presentzial nahiz online-etan 8.005 profesional izan ditu matrikulatuta.

Nazioarteko eremuan, gero eta gehiago dira atzerrira joaten diren eta atzerritik Mondragon Unibertsitatera datozen ikasleak. Iaz 776 izan ziren guztira atzerrira joandakoak, aurreko ikasturtean baino %11 gehiago. Horietatik %71ak gradu amaierako proiektuak, praktikak edota ikaste-bidaia egin dituzte atzerriko unibertsitate, enpresa edota erakundeetan. Ikasle atzerritarrek, bestalde, 382 izan dira.

Mondragon Unibertsitatearen I+G aktibitateari dagokionez, unibertsitateak irakaskuntzaren, ikerketaren eta transferentziaren arteko integrazioan sinistu izan du betidanik, formazioaren kalitatea eta garapen ekonomikoaren eta sozialaren aldeko konpromisoari erantzuteko modurik eraginkorrena dela pentsatuz.

2016-17 ikasturtean igoera nabarmena eman da sarrera nahiz enpresa eta entitate ezberdinekin egindako proiektu eta transferentzia ekimenen kopuruan, guztira 430 ikerketa proiektu nahiz transferentzia ekimen burutuz.

Aktibitate honen zati handi bat epe luzearako ikerketa-programa kolaboratiboen markoan egiten da. Eredu hau Unibertsitatea, Zentro Teknologikoak eta enpresa eta erakundeen arteko elkarlanean oinarrituta dago.

Programa hauen baitan enpresetan sartzen den talentu gaztearen trebakuntza ere barneratuta dago. Horrela, Mondragon Unibertsitateko tesien gehiengoa marko honen baitan finantziatuta dago. Aktibitate guzti honek, gainera, hirugarren zikloari bultzada eman dio. Horren adierazgarri da 2016/17an doktoretza programetan matrikulatuta egon den 155eko pertsona kopurua.